

Telelanaren araudi proposamen berria jorratu da Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialean

Argitalpen-data: 2025/02/11

Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialaren bilera egin da gaur hurrengo gai zerrendarekin:

1. Telelanaren zirriborroa
2. EPEko 2. itzuliaren irizpideak
3. Osasunaren 2024ko LPZ
4. Poltsen kudeaketa
5. Langile batek bi sailetarako lan egitearen legezkotasuna
6. Plantillak gaztetzeko gazte-berritze planak
7. Beste gai batzuk:
 - Eki Plana
 - Lanbide
 - Espetxeetako Ordezko Mahaia
 - Txanda-kontratua
 - Zuzenean
 - Osasun Publikoaren Euskal Institutua
 - Aktak eta kronograma

Jorratu diren gaien artean, aipagarriena ondorengoia izan da:

1. **Telelana:** lan harremanen zuzendaritzak sindikatuei bidali die azken hilabeteetan lantzen ari diren etorkizuneko telelanaren araudi proposamen berria.

Negoziaziorako mahai propio bat sortzea adostu da gai hau jorratzeko, ahalik eta azkarren araudi berria martxan jartzeko.

Administrazioak telelana orain arte irekita ez zegoen lanpostu batzuetara zabaltzea proposatzen du. Bide batez, orain arte derrigorrezkoa izan den etenaldia kentzea ere proposatu du administrazioak.

2. **Egonkortze prozesua:** egonkortze EPEko bigarren bueltarako irizpideak ere jorratu dira, eta baita lan-poltsen kudeaketa irizpideak ere. Hemen barneratuko dira oinarriek finkatzen zuten plazen %10 gehitzeko aukera, hain zuzen ere, 325 lanpostu funtzionarioenak eta, beste 4 laboralenak.

3. **Langileen gazte-berritze plana:** gaurko mahaian langileen gazte-berritze plana ere landu da eta administrazioak hauei buruz hitz egiteko asmoa erakutsi du.

Plan honek orain hilabeteak lantzen ari garen EKI Planarekin lotura zuzena du, izan ere EKI planak aurreikusten ditu administrazioa sarbide sistema berriak, ibilbide profesionalak eta ezagutzaren transmisiorako baliabideak. Eremu hauek jorratzea ezinbestekoa izango da gazte-berritze plan bat adosteko.

4. **Beste gai batzuk:** beste hainbat gai ere jorratu ditugu, hala, lan-poltsen kudeaketa irizpideak, osasun saileko lanpostuen zerrenda, Lanbide, Zuzenean, espetxeak eta administrazio orokorreko langileentzat interesgarriak diren beste hainbat gai.